

HERIOTZA ABADIÑON (Bizkaia)

Rosa Mari Ardanza Mendilibar

Etniker-Bizkaia
Labayru Ikastegia

Behar honetan José Miguel Barandiaran jaunak prestatutako *Guía para una encuesta etnográfica* galdetegian Heriotzari jagokon II. ataleko 238-275 galderen erantzunak batzen dira.

Heriotza: Zeintzuk dira heriotzaren iragarleak? Nola deitzen zaio agoniari? Zeintzuk dira agoniaren unean aurrera eraman beharreko egin-beharrak? Zer egiten da jasangarriagoa izan dadin?

Bazeuden gertaera batzuk heriotza zekartela ziotenak, hauen artean ondorengoak ditugu:

- Oilarrak gauean kukurruku egitea.
- Gauez txakurra uluaka aritzea.
- Logelan tximeleta beltza agertzea.
- Erleen erregina hil ezker beste guztiak hiltzen dira, baina honek etxerako ere zoritxarren bat edo heriotzaren bat dakar.

Badirudi badirela adierazgarriren batzuk heriotza hurbil dagoela adierazteko, hauen artean:

- Begiak dardaraka edo saltoka izatea.
- Atzazalak belztea.
- Gorputz barruko hotza.

Behin Abadiñon bizi ei zan andra bat abolinan euzenai eta, kargu hartzen askotan ibilikue eta bera geixotu zanien esaten ei jjaben: -Hotza deket!

Eta ingurukuek erropa geixau ipintten ahaleginddu, baina berak esan ei eutsien: -Alperrik zabixie, hau hotzau ez da holan kentzekue, hau barruko hotza da, hil aurreko hotza. Eta segiduen hil ei zan.

Batzuetan gaixoa eskuekin gaineko izara batzen hasten zen eta hau ere seinale txarra omen da.

Aittitte hil aurreko astien edo, soluen bedarrak ataraten ibili zan eta ohien beharetan dabilen moduen ebilen izarie batzen eta hau, ba, seinale txarra dala dinue.

Gaixo bat hiltzeko zorian dagoenean aboliñan sartu dela esaten da. Une horretan sendagilea eta apaiza ekartzen ziren. Apaizak (abadeak) etortzen zenean gaixoa, oraindik konortea galdu gabe bazegoen, konfesatzen zuen eta Jauna ematen zion; eta bestela untzioa ematen zion. Abadeak etortzerik ez zuenean, sakristauak edo beste auzokoren batek eliz liburuetatik hartu eta gaixoaren aurrean otoitz batzuk egiten zituen.

Apaiza elizakoak eramatera joaten zenean kanpaiak jotzen ziren eta hauei *elixakuen kanpaiek* esaten zitzairen. Gero, hil bezain laister, berriz jotzen ziren kanpaiak, eta hauei *aboliña kanpaiek* esaten zitzairen.

Gaixoaren aurrean egiten ziren otoitzak: “Jesukristo nere Jauna” gaixoak entzuteko moduan, eta ondoren eliz liburuetako azken otoitzak. Hiltzen zenean errosarioa. Otoitz hauek abadeak zuzentzen zituen ahal zuenean eta bestela sakristauak edo auzokoren batek.

Gaur egun ere, ahal bada, azken momentuan deitzen zaio apaizari untzioa emateko.

Nor da sendagileari eta apaizari deitzeko arduraduna? Nork lagundu behar die elizakoei? Gaixoari nork ipintzen dizkio oinak agerian untzioa ematerakoan? Nolako laguntza eskeintzen diote gaixoari senide eta auzokoek?

Apaiza eta sendagilea deitzera auzokoak joaten ziren eta apaiza monagiloarekin etortzen zen.

Elizakoak ematerakoan hankak eta enparauak agirian jartzen zizkiona orokorrean etxekoren bat izaten zen eta inor ez zegoenean auzokoren batek egiten zuen.

Gaixoardian zehar senideak eta auzokoak gaixoa ikustera joaten ziren eta gailetak, ardo goxoa edo beste horrelakoren bat eramaten zioten. Ardo goxoak ere indarra eta jateko gogoa egiten zituela esaten zuten eta.

Behin gaixo bati galdetu omen zioten:

- *Zelan hago ba?*
- *Etxakiat ba, bela baltzak bueltaka hasi dozak eta seinale ona ez dok.* (Bela baltzak=abadeak).

Sendagilea eta apaiza etortzen zirenerako gela prestatu behar izaten zen. Sendagilea zetorrenerako sobrekama zuria jartzen zen. Eta urez betetako pitxarra eta palangana jartzen zitzaizkion eskuak garbitzeko eta toaila bat lehortzeko.

Apaizarentzako mahaitxo bat mantel zuriarekin, bertan bi kandela piztuta eta olio betetako edalontzi bat “mariposa” (lanparila) bat piztuta barruan zuela. Gurutze bat eta ur bedeinkatua ere bai, erramu adartxo bat eta platertxo batean zahia eta kotoia olioarekin igurtzeko.

Azken igortza ematerakoan etxeakoak eta auzokoak, etxe bakoitzetik bat gutxienez, bertan izaten ziren eta kandela bana ekartzen zuten.

Apaiza etxeren batetara komunioa eramatera joaten zenean, aurretik mona-giloa joaten zen txilina joz eta bidean zeudenak belaunikatu eta txapela kendu behar izaten zuten.

Zerk dakar heriotza? Gorputzetik arima ikusteko moduan ateratzen dela sinisten al da? Nola? Non jartzen da hildakoa?

Ez da ezagutzen heriotzaren eragilea zein den.

Behin baino gehiagotan entzun dituzte arima irteten ikusi dutela esaten dutenak, baina ez zaie dena sinesten. *San Benito hil zanien, bere arrebiek, arimie uso itxuran urtetan ikusi ei jjaben.*

Arima gorputzetik ateratzea normaltzat jotzen da, baina ez da ikusten eta hortarako ez da ezer berezirik egiten.

Norbait hiltzean, hasieran ohean bertan uzten da, eta kutxa ekartzen dutenean barruan sartzen dute. Ohe gainean bertan mantentzen da batzuetan eta mahai baten gainean besteetan. Hau horrela izan duela gutxira arte etxean hiltzen zirenen kasuan.

Hildakoari begiak irekita gelditzen bazaizkio etxekoren batek edo aurrean suertatzen den besteren batek itxi egiten dizkio. Honetaz aparte eskuak elkar-tu, gurutzatu edo bata bestearen gainean jartzen zaizkio eta gorputza zuzendu eta hankak elkartu. Guzti hau itxuragatik izaten da gehien bat eta baita kutxan ondo sartu dadin ere. Ahoa irekita gelditzen zitzaionean zapi batez lotzen zuten okospetik burura eta horrela itxita mantentzen zen.

Zeintzuk izaten dira hildakoaren etxean hartzen diren luto adierazgarriak? Leihoak isten al dira? Ispiluak estaltzen al dira? Eta harmarriak eta erlauntzak?

Orokorrean, etxean norbait hiltzen zenean ez zen abesten eta soinurik entzuten. Honek garrantzi handiagoa izan zuen irratia eta telebista agertzerakoan.

Gaur egun ez da horrelakorik kontuan hartzen, hala ere etxeok ez dute soinu eta musikarako gogorik izaten horrelako uneetan.

Duela urte batzuk bazegoen ohitura, etxekoren baten heriotza zela eta, erlauntzak estaltzeko eta harmarria zuten etxeetan horiek ere estaltzen ziren.

Beste ohitura bat ere bazegoen, hildakoaren etxean, kanpo aldean eskumara, gurutzetxo bat eta zapi beltza jartzen ziren.

Hildakoa etxean dagoen artean, nork hartzen du etxeko lanen ardura? Auzokoe? Nortzuk jotzen dira auzokotzat? Gertuen dagoen etxeok? Etxe berean beste aldean bizi direnak? Nork darama etxera elizako gurutzea?

Orokorrean kanpoko lanak eta erosketak auzokoe egiten zituzten, hurbilenekoek. Samina oso handia zenean, etxe barruko lanetaz ere beraiek arduratzen ziren. Lanak ez zeuden auzokoen artean banatuta eta orokorrean ondoan zegoenak egiten zituen.

Auzokoe, orokorrean, ez zuten lutorik gordetzen. Kasu batzuetan, etxean urte asko morroi edo neskame egindako batzuk, berriz, hartzen zuten lutoa.

Elizatik etxera gurutzea ekartzen zuena auzoko mutiko bat izaten zen eta hiltzen zen egunean ekartzen zuen, hileta bezperan. Hurrengo egunean elizara ere berak eramaten zuen. Honi *kurutzerue* deitzen zitzaion.

Gaur egun, kasu askotan, etxeok izaten dira lanak egiten dituztenak, baina haiek ezin dutenean auzokoe edo senideek laguntzen diete.

Lehenago bazegoen auzoko andre bat, orokorrean hurbilena, kandelak eramateko ardura izaten zuena. Horri *serorie* esaten zitzaion.

Nori eta nola ematen zaio heriotzaren berri? Nor da horretaz arduratzen dena? Etxeko abereei ematen al zaie heriotzaren berri? Nola? Nork?

Norbait hiltzen zenean orokorrean “mezako” ziren guztiei ematen zitzairen heriotzaren eta hiletaren berri. Hauen artean auzokoak sartzen ziren, eta baita senideak ere bigarren lehengusuak arte. Senitartekoei parte emateko bati esaten zitzaion eta gero beraiek izaten ziren zabaltzen zutenak. Gaur egun ere oraindik horrela egiten da.

Hala ere, orain badaude horretarako beste bide batzuk. Hauen artean eskelak, 1960 inguruan hasi ziren, funeraria eta kotxeekin batera. Baita egunkari

eta irratiko eskelak ere, hauek berriagoak dira, baina gaur egun jende askok erabiltzen ditu.

1960 ingurutik hona errekoratorioak ere zabaldu dira, baina gaur egun berriz gutxitzera doazela dirudi.

Lehenago, norbait hiltzen zenean, ermitako arduradunari eta elizakoei esan behar izaten zitzairen eta horretara auzokoak joaten ziren. Ondoren herrian zehar berria zabaltzeko kanpaiak jotzen ziren, hau orain dela gutxira arte mantendu da, baina galtzen ari da.

Etxeo abereei ez zitzairen hiletaren berririk ematen, baina lehenago badirudi etxean norbait oso gaizki zegoenean kortan boteila baten barruan sartuta *urre bizijje* sartzen zela eta han mantentzen zela hainbat urtetan. Urre bizia deitzen zitzaion hori, ez dakigu zer den.

Belarrik erretzen al da hildakoaren gelan? Zeintzuk izaten dira belar hauek?

Ereinotza, erromerua edo patanak. Gelako usai txarra kentzeko balio izaten zuten.

Nola biltzen da gorpua? Nork garbitu eta biltzen du? Zerekin garbitzen da?

Hildakoa garbitzea eta jaztea auzoko andren ardura izaten zen. Urez eta jaboiez garbitzen zen eta aurpegia behintzat denei garbitzen zitzairen.

Aintzina andrei habito beltza jartzen zitzairen eta gizonezkoei habito marroia eta kapa beltza. Geroago aldatu zituzten eta andrei “Ama Doloretakoaren” jantzia jartzen zitzairen, jantzi eta galtza beltzak eta bularrean puntila zuriak. Gizonei San Frantziskoren jantzia, habito grisa, *asto urdinen kolorekoa* eta txotoarekin.

Gazteak beste era batetara jazten ziren. Mutilak zirenean *luistarren jantzia*, San Luis Gonzagaren kongregaziokoa: tunika urdin argia. Neskei *Mariaren alabena* edo *hijas de Mariena*, kontzezioko Ama Birjinaren jantzia: Soineko urdin argia apaingarri dorauekin. Hau izaten zen ezkongabe hiltzen ziren neska guztien jantzia, gazte zein zahar.

Umeez jantzi zuria eramaten zuten, gerrian kordoia eta buruan koroia.

Dirudunen jantziak ere antzekoak izaten ziren.

Gaur egun, orokorrean, bakoitza bere arrokekin lurperatzen dute.

Hilkutxan gorpuekin batera besterik jartzen al da hildakoaren eskuetan edo sepulturan? Gorpua al da inolako argi berezirik?

Hildakoari eskuetan gurutzetxea edo errosarioa jartzen zitzaizkion, baina lurperatu aurretik kendu egin behar izaten ziren lurrak ez duelako gauza sakratuak onartzen.

Badirudi inoiz kutxa barruan eskukada bete lur ere jartzen ote zen.

Elizako sepulturan, berriz lehenago, bi kandela eta opil bat jartzen ziren (arimen ogia).

Hildakoa logelan egoten zen eta, azken unean, apaiza zetorrenerako atarira eramaten zuten.

Bai gelan lehenengo, eta baita atarian gero ere, gauza hauek jartzen ziren: Mahaixto bat mantel zuriarekin eta ganean bi kandela, ur bedeinkatua, ereintza edo erromeru adartxoak. Horrekin uretan busti eta apaizak hildakoari Pater Nosterra botatzen zion. Olio ganean lanparila bat ere izaten zen mahai horren ganean eta hau gau eta egun piztuta mantendu behar izaten zen.

Gorpua zaintzen al da? Nortzuk zaintzen dute eta zer egiten dute horrelakoetan?

Gorpua etxean zegoen artean norbait beti zegoen edo logelan bertan edo sukaldean. Gaua egiteko hurbil bizi ziren senideak eta auzokoak etortzen ziren. Auzokoen artean etxe guztietatik etortzen zen norbait, etxe bakoitzeko bat gutxienez. Gaua pasatze honi *gaubellie* esaten zitzaion.

Orokorrean jendea sukaldean egoten zen, eta noizik behin logelatik buelta bat ematen zuten. Bai sukaldean eta baita gelan ere errosarioak errezatzen ziren. Batzuk goizaldeko ordu biak arte egoten ziren, eta beste batzuk ordu bietatik aurrera. Baziren gau osoa egiten zutenak ere.

Sukaldean jateko zerbaitek jartzen zen etortzen zirenentzako. Batez ere intxaurrak, gazta, gailetak, ardoa eta ardo gozoa.

Aspaldian ez da horrelakorik egiten. Duela gutxira arte senideak eta auzoko batzuk etortzen ziren batzuetan doluminak ematera, batez ere etxean hil zenean. Orokorrean hil eta ondoren ematen dira doluminak. Gaur egun gorpua tanatorioan izaten da eta hara joaten da jendea.

Norbait hiltzen den unean jotzen al dira elizako kanpaiak? Nola deitzen zaie? Hileta eta lurperatze garaian ere jotzen al dira?

Norbait hiltzen zenean auzokoren bat elizara eta baselizara joaten zen horren berri ematera eta orduan, bietan, kanpaiak jotzen zituzten. Lehen uneko kanpai hauei "abolinako" kanpaiak esaten zitzaaien. Elizan, kanpai normalekin, lehenengo hamaika edo hamairu kanpai jotzen ziren astiro astiro eta ondoren bi jarraian.

Baselizan, berriz, andrea zenean hildakoa kanpai jotze saioto bi, eta gizona zenean hiru jotaldi. Hau goizetan eta gauetan egiten zen gorpua lurperatu arte.

Elizan, lur eman bitartean, goizean, eguerdian eta gauean “hil-kanpaiak” jotzen ziren. Hildakoa andrea zenean lehenengo kanpai nagusi bi eta hiru edo lau txiki. Eta gizonezkoa zenean, hiru nagusi eta hiru edo lau txiki.

Hildakoak dirudunak zirenean, edo itxura hori eman nahi zutenean, gehiago ordaintzen zuten, eta kanpaiak ere beste era batera jotzen zituzten: Hasierako kanpai nagusiak berdin, baina ondoren bederatzi edo hamar kanpai txiki musika itxura emanez. Eta jendeak hau entzutean esaten zuten: *bauku, bauku!* (badaukagu, badaukagu!).

Umeren bat hiltzen zenean kanpai txikiak baino ez ziren jotzen, eta *aingeru kanpaiak* esaten zitzaien.

Hileta garaian, elizan eta baselizan, kalkulatzeko zuten noiz ateratzen zen gorpua etxetik eta orduan kanpai jotzen hasten ziren. Hil-kanpaiak bezala eta ondoren bost minutu ingurura kanpai handi bat eta bi txiki. Baselizan gorpua auzoko mugetatik eraman arte jotzen zuten. Elizan jotzen jarraitzen zuten, eta eliza ondora iristean hamar kanpai ertain jotzen ziren apaizei abisatzeko eta hauek irteteko.

Horrela jarraitzen zuten bost minututik bost minutura kanpaiak jotzen: gorpua eliz ondora iritsi, elizpean mahai baten gainean jarri eta erresponsoa botatzen zitzaion artean, eta baita hilerrira eraman eta han beste bi erresponso bota arte ere (bat hilobiari eta beste bat kutzari). Ondoren jendea elizara joaten zen eta orduan bukatzen ziren kanpaiak.

Gaur egun ere jotzen dira kanpaiak, baina geroz eta gutxiago. Izan ere dau den zarata guztiekin ez baitira entzuten. Hileta garaian jotzen dira batez ere. Eta duela gutxira arte lehenago bezala jotzen ziren. Baina azken urteotan ez da diruaren araberako desberdintasunik egiten, gaur egun ez baitira hiletak ordaintzen.

Gorpua kutxan ala andan eramaten da? Zein itxura eta koloretakoak dira hauek? Apaingarri berezirik eramaten al dute?

Orokorrean hilkutxetan eraman izan dira. Hala ere, beste batzuek esanda koaren arabera, badirudi, XX. mende hasieran, izurriteren bat izan zela, tifusa dirudinez, eta gazte asko hil omen ziren. Gaixotasun kutsakorra zenez, herriak ordaindu egiten ziren gorpuak eramateko prestatzen zirenei. Orokorrean mozkorrak eta horrelakoak joaten omen ziren. Horien artean Pasko deitzen zioten bat. Gorpu horiek eramateko *angillak* erabili ziren eta gorpuak izara batez estaltzen zituzten.

Guda garaian hildakoak ere *angilletan* eramaten zituzten.

Hala ere, lehenago esan bezala, aspalditik kutxak erabili izan dira, horrelako kasu berezi batzuetan izan ezik. Kutxa egiteko arotza etxera etortzen zen eta neurriak hartzen zituen, eta ondoren egin. Egurrezkoak ziren eta gainera ohialez forratzen ziren. Ohialaren koloreko lazoak jartzen zitzaizkien apaingarri legez. Diru gehiago zutenei fleko antzerako batzuk ere jartzen zizkieten. Nagusien kutxak ohial beltzez estaltzen ziren, gazteenak urdin argiz eta umeenak zuriz.

Orokorrean auzoko gizonak izaten ziren arotzarengana joan eta *atautie* eskatzen zutenak.

Arotzak hileta antolatzerakoan ez zeukan beste zeregin berezirik.

Azken urteotan funerariak izaten dira gauza horietaz arduratzen direnak. Kutxak egurrezkoak izaten dira eta barruko aldetik forratzen dituzte. Oso salneurri ezberdinetakoak izaten dira.

Lehenagoko kutxak, sorbaldan eraman behar izaten zirenez, bazituzten azpi aldeko lau muturretan heldulekuak. Kirten horiek almohadila eran babestuta zeuden garraioa erosoagoa izan zedin.

Zein izaten da gorputzak hartu duen itxuraren esanahia?

Hiltzen den unean gorpuak izaten duen itxura kasu batzuetan izaten da zerbaiten adierazgarri. Esate baterako, begi bat irekita eta bestea itxita gelditzen bazaizkio, laister heriotzak beste norbait eramango duela esan nahi du. Begi biak irekita gelditzen bazaizkio, laister berarekin aingeru (ume) bat eramango duela esan nahi du eta ezagutu ere egiten dira horrelako kasuak.

Hildakoaren gurasoek ba al dute debekurik gorpua etxean dagoen artean?

Ez da horrelako gauza berezirik ezagutzen. Lehen aipatu bezala, kanpoko lanik ez zuten egiten, auzokoak joaten zitzaizkien horretara.

Zerraldoaren aurrean jaten al da ezer?

Ez, ez da horrelako ohiturarik ezagutzen.

Hildakoa elizara eramaten al da? Zer egiten da etxetik ateratzerakoan? Beheko suko txingarren bat kalera botatzen al da? Nork botatzen du?

Apaiza hildakoaren etxera joaten zen zerraldoari elizara laguntzeko. Hori beti horrela izaten zen, etxea hurbil zein urruti egon. Apaiza joaten zenerako gorpua *etartean* (atarian) jarrita izaten zuten eta han abadeak lehenengo erresponsoa

botatzen zuen. Gero elizara bidean aurkitzen zituzten baseliza eta gurutze guztietan, beste erresponso bana. Bidea luzea zenean, bide erdian zegoen etxeren batekoek mahaia jartzeko ardura izaten zuten eta hemen atsedean hartzen zuten, eta abadeak beste erresponso bat botatzen zuen.

Urruti zeuden etxe edo auzoetakoek aspalditik ezarrita izaten zuten etxea eta bertakoek mahaia prest izaten zuten. Urkiolakok Olondon izaten zuten eta Sagastakoek Bidekoetxebarrin.

Duela gutxi ere, hidakoa etxean zegoenean, hileta ordua baino piska bat lehenago apaiza etxera etortzen zen funerariakoekin eta otoitz batzuk egiten zituen.

Sua kanpora botatzeko ohiturarik ez da ezagutzen.

Nortzuk eta nola eramaten dute kutxa elizara? Zein aldetara begira joaten da kutxa?

Autatie eramaten zutenak hildakoaren auzoko mutil gazteak izaten ziren, hauei *anderuek* esaten zitzairen. Hamasei urtetik gorakoak izaten ziren orokorrean. Orokorrean lau izaten ziren, baina kasu batzuetan, etxea urruti zegoelako, sei joaten ziren eta txandaka aritzen ziren. Urkiolatik, berriz, zortzi joaten ziren.

Hildakoa umea zenean hamar urte inguruko bi mutikoren artean eramaten zuten.

Gorpua beti hankak aurrera begira dituela eramaten da. Gaur egun ere anderuak izaten dira, baina kotxetik elizara eta handik hilerrira baino ez dute joan behar izaten. Orokorrean etxeok edo senideak izaten dira.

Hildakoak eramateko erabiltzen diren bideak beti berdinak izaten al dira? Nola deitzen zaie? Hildakoa toki batetik eramatean zorra sortzen al da? Eta elizakoak eta gurutzea eramatean ere sortzen al da zor hori? Zer egin dezake lur horien jabeak zor hori ez dadin sortu?

Orokorrean etxe bakoitzak bere bidea izaten zuen auzora iristeko, eta handik eta herrira artekoa auzoko guztientzat berdina zen. Bide horiei *andabidie* esaten zitzairen eta zerbaitegatik, bidea gaizki zegoelako edo, beste toki batetik joaten baziren hori bihurtzen zen *andabide*, horregaitik bide horiei *zor dan bidie* esaten zitzairen. Hala ere, eta behingoagatik ez zen ezer gertatzen, baina askotan jarraituz gero bai. Ez da ezagutzen inolako erarik hori ekiditeko. Orokorrean ez zen arazorik izaten eta bide horiek errespetatzen ziren.

Elizakoak eramateko, apaiza edozein tokitatik joaten zen ahalik eta azkarren iristeko, horregatik ez zen zorrik egiten. Gurutzea eramateko ere edozein tokitatik joan zitekeen.

Gaur egun kontu horiek ahaztuta daude errepideak baitaude toki guztietara.

Maizterrek etxeko jabearen etxera eramaten ahal zituzten gorpuak gero bertan apaizak jasotzeko?

Ez, apaiza herriko etxe guztietara joaten zen.

Nortzuk joaten dira gorpuari lagunduz elizarantza? Ze ordenatan jartzen dira? Nola jantzita? Zer egiten dute? Toki zehatzetan geldiuenerik egiten al dute? Zer dela eta?

Elizara bidean lehenengo *kurutzerue*, gero abadea eta ondoren *anderuek atautearekin*. Atzean gizonezkoak: etxekoak, senideak eta auzokoak. Ondoren andreak, hauek ere lehenengo etxekoak, ondoren senideak eta azkenik auzokoak.

Elizan gizonak aurrean jartzen ziren eta ordena berean. Etxeko andreak etxeak elizan zuen sepulturan jartzen ziren beraien aulkietan eta beste andre guztiak hauen inguruan.

Beltzez jantzita joaten ziren. Auzokoak batzuetan beltzez ez, baina kolore ilunekin. Gizon gazteak, garai batean, beltzez jantzi ordez besoan edo solapan lazo beltza jartzen zuten.

Bidean jendea ixilik joaten zen, kasu batzuetan negarrez ere bai, baina bestela ixilik.

Hildakoa eskola umea zenean bidean eskolako beste umeak elkartzen zitzaizkien eta hauek apaizaren atzean joaten ziren.

Aspaldi, badirudi *seroriek*, auzoko hurbileko andre batek, kandelak eta *olatie* (ogia) eramaten zituela. Ogia buruan. Baina hau entzutez baino ez dakite, beraien ez dute ezagutu. Gero, kandelak serorak eramaten zituen, baina lehenago, eta elizako serorari (*sakristanari*) ematen zizkion eta horrek hiletako mezarako elizan jartzen zituen.

Bidean zehar gurutzeetan eta baselizetan denak gelditzen ziren, eta anderuen artean hildakoa sorbalda gainean mantenduz, apaizak Pater-Nosterra botatzen zuen.

Gorpua hilobiratu ondoren denak elizara joaten ziren. Jarraian bi meza izaten ziren hiru apaizekin eta beti goizeko hamarretan. Urteko egun batzuetan ezin zuten meza bat baino gehiago eman, gabonak aldera eta garizuman behintzat horrela izaten zen. Eguen Santuz eta Bariku Santuz ezin zen mezarik eman. Kasu horietan falta ziren mezak beste egun baterako uzten ziren.

Gaur egun kontu horiek asko aldatu dira. Kotxeak agertzen hasi zirenean errepideraino oinez eramaten zen gorpua ordura arte bezala, baina handik aurrera kotxez eta oso poliki jendeak atzean oinez jarraitu ahal izateko. Gaur egun dena kotxez eta askotan bakoitza bere aldetik, batez ere hildakoa ospitaletik zuzenean ekartzen dutenean. Etxean dagoenean edo tanatorioan oraindik mantentzen da pixka bat ordena: lehenengo funeraria joaten da eta honek eramaten du apaiza ere eta gero etxeakoak kotxeetan.

Loreak jartzen kotxeekin hasi ziren inguruan hasi ziren eta horrela jarraitzen da, baina ez dute esanahi berezirik eta nagusiek askotan lelokeriak direla esaten dute. Orokorrean etxeokok lore koroaren bat jartzen dute, lanekoek edo lagunek besteren bat. Kasu batzuetan koroa pila izaten dira.

Abadiñon hiletetarako ez da inoiz zalgurdirik erabili.

Ba al da hildakoaren ohea erretzeko ohiturarik? Nork erretzen du, noiz eta nola? Zer esanahi du horrek?

Lehenago, oheko arropak beti erretzen ziren. Ondoren gaixotasun kutsakoren kasuan bakarrik eta ohe guztia. Beste hainbat kasutan, batez ere iguina ematen zuenean, *lastamarragie* (arto malutaz egindako koltxoia) edo koltxoia erretzen ziren.

Etxekoek erretzen zuten. Edozeinek eta edozein tokitan. Ez da ezagutzen hortarako toki eta une berezirik.

Non jartzen da zerraldoa hileta garaian?

Lehenago elizpean jartzen zen eta bertan otoitz batzuk egin ondoren kanposantura eramaten zuten. Han ur bedeinkatua bota zulora eta kutxara, beste otoitz batzuk egin eta lurperatu. Ondoren mezak.

1970 ingurutik hona eliza barruan jartzen da eta meza ondoren lurperatzen da.

Zer motatako hiletak izaten dira? Ze otoitz berezi egiten da?

Lurperatu ondoren meza izaten zen. Goizeko hamarretan eta bi meza elkarren atzean. Meza horietan hiru apaiz izaten ziren.

Hileta mezak hiru motatakoak izan zitezkeen:

Primerakoak: Garestienak, kantoreekin.

Segundakoak: Organoa bakarrik.

Terzerakoak: Jabe gabekoei eta eskekoei. Meza bakarra eta soinurik gabe.

Gaur egun hiletak ez dira ordaintzen eta denentzat antzekoak izaten dira. Orokorrean organoa eta abesbatza ere izaten dira. Apaiz kopurua herrian dauden araberakoa. Askotan bat bakarrik. Kasu askotan herriko abadeaz gai beste etxekoren bat edo lagunen bat ere izaten da meza ematen. Inguruan abaderen bat dutenen artean behintzat.

Gaur egun orokorrean arratsalde izaten dira, jendeak lanetik irten ondoren joateko moduan. Larunbat, igande eta jai egunetan eguerdi aldera.

Lehenago hileta meza latinez izaten zen, beste mezak bezala, eta gaur egun euskeraz edo gaztelaniaz. Otoitz berezi askorik ez da izaten. Gehien bat abestiak eta azkenean kuxtari egiten zaizkion otoitzak.

Hildakoari lagunduz negar egiten duten andrearik eramaten al da? Nola deitzen zaie? Zer egiten dute?

Ez da horrelakorik ezagutzen.

Elizan etxe bakoitzak izaten duen sepulturan argiak jartzeko ohiturarik ba al da?

Bai, orokorrean zapi baten gainean bi kandela jartzen ziren lazo beltzekin. Aberatsek lau kandela jartzen zituzten. Kandela hauek luto denbora guztian mantendu behar ziren eta horretarako, igande, jai egun eta jai erdi guztietan etxeko andreren batek edo besterik ez bada umeren batek sepulturara joan behar zuen kandelak piztera. Hau hamarretako mezan izaten zen. Abaderen bat, libre zegoenean, meza denboran, sepulturetatik pasatzen zen eta bertan zegoenak ematen zion diruaren arabera, hainbeste Pater-Noster esaten zituen. Gero, meza amaitu ondoren, beste abadeek ere laguntzen zioten.

Kandela horietaz aparte, batzuk argizari txortak, "argizaiolak" oparitzen zizkieten eta hauek ere meza denboran piztu behar izaten zituzten eta beheko zapiak ez erretzeko zaindu.

Hori guztia gaur egun galduta dago, elizan ez dago sepulturarik. Kentzen joan ziren, batez ere, kandelaren kearekin eliza asko zikintzen zelako.

Nortzuk argitzen dute sepultura? Eta bakoitzak zenbat argizariarekin?

Ez zegoen argizaria oparitzeko ohitura handirik edo obligaziorik, hala ere hainbatek eramaten zuten, ondo gelditzeko edo. Senideek ekartzen zuten eta beste ezagun batzuk ere batzuetan bai. Orokorrean oparitzen zutenek txorta bat ematen zuten.

Kandelak ipintzea, berriz, etxekoen ardura izaten zen. Urte bian egiten zuten.

Zer eskaintza egiten da hiletak direla eta? Animali bizirik eskaintzen al da? Non jartzen dira eskaintzak elizkizun garaian? Nor arduratzen da horietaz? Zertarako izaten dira? Hildakoen arimak jaten dituzten sinismenik ba al da?

Sepulturetan egiten diren eskaintzak kandelen argiak dira, eta lehenago ba-dirudi ogia, “arimen ogia”, ere jartzen zela, baina hau aintzinako ohitura zen eta aspalditik galdua dago.

Animalirik eskaini denik ez dute gogoratzen.

Egiten diren eskaintzak sendi bakoitzari elizan dagokion sepulturetan jartzen dira, zapi baten gainean.

Kandeletaz etxeok arduratzen dira luto garai guztian, baina hileta egunean *serorie* izaten da horiek jartzeko arduraduna eta ogiak banatu eta jasotzen zituena ere bai.

Serorie, elizako arduraduna izaten zen, emakumezkoa. Gaur egun *sakristana* esaten dioguna.

Ogi horiekin gero zer egiten zen eta zertarako ziren ez dakite.

Nortzuk ordaintzen dituzte hiletak? Zenbat diru bakoitzak? Erresponso eta beste horrelakorik ateratzen al da? Sepulturetan? Zenbat irauten du “elizkizunak” edo “lutoak”, bakoitzean-bakoitzean sepulturetara eskaintzak eta argiak eramateak? Honelakoetan nor izaten da etxeok ordezkarria?

Hiletak ordaintzen zituztenak etxeok izaten ziren. Orokorrean hildakoak gurasoak baziren eta seme-alabaren bat etxera ezkontuta eduki, hauen ezkontza kontratua egiterakoan gurasoak jasotzea sartzen zen eta horiek ordaindu behar izaten zituzten hiletak. Bestela etxeok guztien artean edo.

Norbait oso gaixorik dagoenean abadeari deitzen zaio elizakoak emateko. Une horretan, etxeok, senideak, eta auzoko etxeetatik gutxienez bana egoten dira. Bakoitzak kandela bana eramaten dute eta etxekoei, laguntzeko, *bixittie* deitutako dirua ematen diete. Hau, behar baharrezkoa ez zen, baina bazegoen ohitura eta gehienek ematen zuten.

Inoiz gertatzen zen gaixoa sendatzea eta gero berriz gaizki jartzea. Horrelakoetan elizakoak berriz ekartzen zitzaizkion eta dirua ere berriz ematen zuten. Ondoren, hileta egunean edo ondorengo egunetan, senide, lagun eta auzokoei “mezak” ateratzen dituzte. Horretarako kopuru bat ezartzen dute apaizek. 1990ean 400 pezeta ziren eta 2011n 6 euro. Diru hau etxekoei edo abadeei ematen zaie, baina azkenean apaizentzako izaten da, eta diru horrekin, urtean zehar, hildakoaren alde mezak ematen dituzte.

Hiletaren ondorengo igandean *urteijjerako mezie* izaten da. Orduan etxeko andreak eta senitartekoak sepultura jartzen ziren. Meza hasi aurretik, senideek, auzokoek eta herriko hainbatek dirua botatzen zuten, “txakur” batzuk, eta diru hori apaizari ematen zitzaion erresponsoak botatzeko. Apaizak “txakurrak” txapelean gordetzen zituen eta Pater-Nosterrak botatzen zituen. Ondorengo igande, jai egun eta jai-erdi guztietan etxekoek jartzen zuten dirua erresponsoak botatzeko, hau lutoak irauten zuen artean egiten zen, urte bian.

Orokorrean jendeak erresponsoetarako dirua sepultura zegoen ohial gainean uzten zuen. Sepultura orokorrean bi ohial izaten ziren, bat azpian, handiagoa eta gainekoa finagoa eta txikiagoa. Orokorrean biak beltzak izaten ziren, baina hildakoa gaztea zenean gainekoa zuria izaten zen eta umea zenean biak zuria.

Gero, elizatik sepultura kendu zirenean, eta orain dela gutxira arte, sepultura bakar bat jartzen zuen sakristauak eliza erdian bi kandelarekin, eta denak hara botatzen zuten dirua arimen alde meza ateratzeko. Hau *Domu Santu* egunean izaten zen.

Meza dirua oraindik ematen da. Ematen dutenen izenak apuntatu egiten dira gero nori eman kontuan hartzeko. Gero abadeak meza ematerakoan hildakoaren izena esaten du, baina dirua eman dutenen izenak ez dira iragartzen.

Nolako izaten da kanposantuko sepultura? Eta elizakoa? Sepultura horiek sendiarenak al dira, ala etxeari dagozkio eta ezin dira banatu? Sinisten al da gauzez ezin zaizkiola eman hiru buelta ez hilerri, ez eliza eta ezta inongo etxeri ere?

Kanposantu zaharra teilatupe laukia da. Laukiaren erdigunea ez dago estalita, eta han dirudun batzuen panteoiak daude. Horietariko bi marmolezko eskulturekin.

Jende arrunta teilatupeko laukian lurperatzen zuten. Lurreko harri losapean. Harri losa hauei gainean zenbakia margotzen zitzaien eta horrela jakiten zen non zegoen nor.

Gero, txiki gelditu zenean, kanpoan egin zuten beste hilerri bat. Nahi zuten edo ordaindu zezaketen sendientzako panteoiak, eta lurrean besteentzat. Lurreko hoberi, orokorrean, marmolezko edo harrizko plaka bat jartzen zitzaien izenarekin eta gurutzearekin. Batzuetan burnizkoak ere izaten ziren. Geroz eta dotoreagoak jarri izan dira. Batzuetan gurutzea bakarrik jarri ordez, gorpuak hartzen duen guztia ere marmolez edo harriz hartzen da. Gaur egun batzuk gurutzearen ordez lauburua edo beste horrelako ikurren bat ere jarri izan dute.

1990 inguruan nitxoak ere jarri zituzten. Hala ere gaur egun gorpu asko erre egiten dituzte.

Elizako sepultura zenbakiz markatzen zen eta bi aulki jartzeko adina toki izaten zuen gutxi gora behera. Elizako sepulturak etxearenak ziren eta bertan bizi zirenenak. Denborarekin, etxe guztietatarako tokirik ez zegoenez, etxe bat baino gehiagotakoak ere sepultura berean jarri behar izaten zuten. Eliz barruko sepultura apaintzeko, luto garaian eta Domu Santu egunean, lehen aipatutako ohialak eta bi kandela jartzen ziren. Kandela hauek bere ontzietan jarrita eta lazo beltzekin apaindurik.

Luto garaian eta Domo Santuetan etxeko sepulturan andreak jartzen ziren. Aurrean etxeoandrea eta gero etxeko beste emakumezkoak.

Eliza, hilerri edo etxeei gaeuz hiru buelta emateak ekar ditzazkeen ondorioen siniskeririk ez da ezagutzen.

Auzokoek ez zuten sepulturan zereginik izaten eta sakristauak hileta egunean kandelak eta ogia jartzen zituen, baina beste egunetan etxeoak arduratzen ziren.

Sepulturak apaintzeko egun berezia Domu Santu izaten da. Lehenago elizako sepulturak kandlekin apaintzen ziren, baina hilerrian ez zen ezer jartzen. Gero hasi ziren loreekin apaintzen. Urte batzuetan lore solteak, hostoak, harritzoak, zerrautsa eta horrelakoak eramanez apainketa itzelak egiten ziren. Gaur egun ez da hainbeste lan hartzen, eta gehienetan erositako lore zortak jartzen dira. Hainbat jendeak diru pila gastatzen du horretan.

Abadiñon hilerriari *kanposantue* esaten zaio.

Badirudi bazela hilerri barruan aparteko tokiren bat bere burua hil edo bataiatu gabe hiltzen zirentzako, baina ez da ondo ezagutzen.

Abadiñon oraingoz ez dago lurperatze zibilak egiteko ohiturarik.

Hilerria eta sepulturak zaintzeko arduraduna enterradorea izaten da. Gaur egun udaletxeko langilea da.

Domu Santuetan, sepulturak ikustera joatean, bertan otoitz egiten zen, erro-sarioa edo antzekoren bat.

Lehenago hau ilunkeran eta hilerriko kapilan egiten zen. Gaur egun bakoitza bere sendikoen sepulturak ikustera joaten da eta bertan otoitzen bat egiten da.

Nortzuk dute etxe bateko sepulturan lurperatzeko eskubidea?

Bataiatutako ume txikiak hilerriko kapila barruan lurperatzen omen zituzten. Hilerriko sepulturak hil ahala erabiltzen ziren. Pertsona bakoitza batean, ez sendika. Panteoiak bai, sendiarenak izaten dira eta hauek onartzen dituztenak sartzen dira bertan.

Elizako sepulturak erabiltzen ziren garairik ez dute ezagutu.

Lurperatzerakoan nortzuk izaten dira bertan? Nolabait parte hartzen al dute? Nola?

Lehenago enterradorea eta anderuak baino ez ziren izaten, baina gero etxe-koak eta beste batzuk ere bai. Orokorrean ez dute ezer berezirik egiten. Hilerrian kutxa irekitzen da eta nahi duenak hildakoa ikusteko aukera izaten du. Hildakoak oso itxura txarra baldin badu ez da irekitzen.

Badirudi inoiz lur piska bat hartu eta kutxa barruan sartu izan dutela, baina hau ez da oso ziurra. Gurutzeak lurperatu aurretik kendu egiten ziren. Bai hilda-koari eta baita kutxari ere: *lurrek ez dau gauza sakraturik onartzen.*

Gorpua lurperatzerakoan norantza jakin batean jartzen al da?

Ez dakite, baina seguraski hankak hilerriko bide aldera eta burua gurutzea jartzen den aldean.

Maisterrak ere etxaunaren jarleku eta sepultura bera erabiltzen al ditu?

Jarlekua beti etxearena izaten zen eta etxean bizi ziren guztiena. Hilerriko sepultura, berriz, hildakoarena. Hil ahala okupatzen ziren hobiak.

Hileta ondoren, nortzuk itzultzen dira hildakoaren etxera eta, zein ordenatan?

Orokorrean etxean bizi zirenak baino ez. Eta horretarako ez zen ordena zehatzik mantentzen.

Etxean sartu aurretik, atarian, argi edo suren baten aurrean otoitz egiten al da?

Ziur ez dakite, baina badirudi batzuetan behintzat baietz. Argi edo surik jar-zen zenik ez dute gogoan.

Hiletaren ondoren tabernan bazkaria eskaintzen zitzaaien senide, auzo eta anderuei. Gero bakoitza bere etxera joaten zen.

Hildakoaren etxean banketerik egiten al da? Nola deitzen zaio honi? Zer janari mota ematen da? Horrelakoetan haragia jatea debekatuta al zegoen? Nortzuk gonbidatzen dira?

Inkesta egin zaienek gogoratzen dutenetik hona, bazkari hori tabernan egin izan da. *Entierro bezkeijje* esaten zaio eta orokorrean honeko hauek jaten ziren: hasteko bi lapiko, garbantzua eta aza; gero makailaua edo okela piperrekin eta fruta. Okela jatea ez zegoen debekaturik.

Jatera joaten zirenak “mezako” zirenak izaten ziren: senideak, auzokoak, anderuak eta *kurutzerue*.

Hileta bukatu ondoren sakristiako atean jartzen ziren auzoko bat edo bi, eta horiek esaten zieten meza ateratzera zihoazenei non izango zen bazkaria.

Bazkaria gehienak egiten zuten arren, baziren ez zutenak egiten. Horrelakoe-tan anderuak eta *kurutzerue* izaten ziren gonbidatu bakarrak.

Bazkaria hasteko eta bukatzeko otoitzen bat egiten zen. Batez ere hasieran, eta orokorrean Pater-Nosterra izaten zen.

Gero, hainbat arrazoiengandik ohitura hau galdu egin zen. Askotan bazkari horretan jendeak mozkorrak harrapatzen zituen eta gainera hiletak arratsaldez egiten hasi zirenez bazkariak zentzua galdu zuen.

Orain ere, kasu batzuetan, irteera mezaren ondoren hamaiketako egiteko gonbitea egiten zaie senitartekoei.

Nolako luto agiriak hartzen dituzte etxeak eta etxeok norbaiten heriotza dela eta? Zenbat denbora irauten dute hauek? Elizako jarlekuan argizariak argi egiten duen artean?

Etxean ez da luto agiririk ezagutu, baina etxeok bai. Hildakoa izeko-osabaren bat edo aitona-amonak zirenean urte beterako eta gurasoak edo anai-arrebak zirenean bi urterako.

Hildakoa senarra edo emaztea zenean, lutoa bizi guztirako izaten zen.

Lutoa beltza zen eta bigarren urtean *medio lutue* (zuria, morea, grisa) onartzen zen.

Kasu batzuetan gizonezkoak ez ziren guztiz beltzez jartzen. Gabardina eta horrelakoekin lazo beltza jartzen zuten.

Alargunak, eta batez ere andreak, betirako beltzez.

Luto garaian, batez ere lehen urtean, ez zegoen dantzatzerik, eta etxean irratia jartzerik edo horrelakorik ere ez.

Lutoaren kontu hau piskanaka galtzen joan da. Gaur egun lutoa hartzen duten bakarrak andre alargunak dira, eta hauek ere askotan ez. Batzuk lehen urtean bakarrik.

Ez dantzatzea eta horrelakoak ere orokorrean ez dira mantentzen, edo gehie-
nez hileta eguna pasa arte.

Alargun gelditzen zirenak gutxitan ezkontzen ziren berriz, batez ere emaku-
mezkoak. Baina bigarren aldiz ezkontzekotan ere, gehienek, urte bete itxaroten
zuten.

Heriotzaren inguruan, zer nolako elkarte erligioso edo zibil ezagutu dira? Zer eskaintzen dute? Zeintzuk dira bertako partaideen betebeh- rrak?

Lehenago norbait hiltzen zenean kutxa eta elizkizuna ordaindu behar izaten
ziren, eta hau etxekoek ordaintzen zuten. Baziren enpresa batzuk hilean edo ur-
tean kopuru bat kobratu eta hileta gastuak ordaintzeaz arduratzen zirenak. Gaur
egun ere badira horrelakoak.

1955 inguruan herrian horretarako beste elkarte bat sortu zen. *Apostolaukue*
esaten zitzaion, eta nahi zutenak apuntatzen ziren. Elkarte barruan junta bat au-
keratzen zen diru kontuak kudeatzeko. Horrez gain auzo bakoitzean “zeladore”
bat izaten zen etxerik etxe joan eta dirua batzeko arduraduna. Jarri behar zen
diru kopurua ezarrita egoten zen eta ez zen kopuru handia izaten, hamar pezeta
inguru hilean. Horrela etxean norbait hiltzen zenean elizako gastuak eta kutxarena
ordaintzen zuten eta baita etxekoi zerbait eman ere. Elkarte honek hamabost urte
inguru baino ez zituen iraun. Elkarteko kide kopurua jaitsi egin zen eta gutxiren
artean gastuei aurre egiteko asko jarri behar izaten zutenez bukatu egin zen.

Elkarte honek, urtean behin, kideen artean zozketa bat egiten zuen. Poltsak,
karterak eta horrelakoak zozketatzen ziren. Zozketa hori San Pedrotan izaten
zen. “Hirurrena” egiten zen, hiru egunean jarraian meza, eta azken egunean joa-
ten zirenen artean egiten zen esandako zozketa.

Gaur egun etxekoek ordaintzen dute orokorrean funerariaren gastua. Elizkizu-
na ez dute kobratzen. Hala ere batzuk badira funerarietan apuntatuta eta hilean
kopuru bat jarriz egiten dutenak. Zer nolako zerbitzuak nahi dituzun kontutan
hartuz horrenbesteko kuota ordaindu behar da.

Apostulaukoaren kasuan denak berdin ordaintzen zuten. Hileta eta kutxa ere
denentzako kategori berekoak izaten ziren.

Aipatu noiz gertatu diren azken aldaketak: Etxetik kanpo gorpua jartze- ko kapilak eta tanatorioak. Ze irudipen dago gorpua erretzeari buruz.

2000. urte ingurura arte norbait etxean hiltzen zenean gorpua bertan edu-
kitzen zen elizkizunaren ordura arte. Ospitalen batean hiltzen zenean berriz,
orokorrean ez zen etxera ekartzen eta bertako depositoan egoten zen elizara
ekarri arte.

Gaur egun etxean hiltzea oso arraroa da. Ia denak ospitalean hiltzen dira. Eta kasu guztietan, edo ia beti, hildakoa tanatoriora eramaten dute.

Hildakoa garrantzi handiko pertsonairen bat izanez gero, politika arloan zerikusi handia duena edo, udaletxean edo antzeko tokiren baten jartzen zaio hilkapera.

Gorpua erretzea 2000. urte ingurura arte oso arraroa zen, baina gaur egun geroz eta jende gehiagok egiten du. Duela gutxira arte hilerrietan tokirik ez zegoen eta 2010. urtean berriz erdiak inguru izango dira erretzeko aukera baliatu dutenak, eta horrela hilerrian ez da hainbeste leku behar. Errautsak, gehienetan, familiari edo hildakoari berezia iruditzen zaion parajeren batean zabaltzen dira. Batzuk, errautsak bota diren inguruan zuhaitz landarea jartzen dute hildakoaren omenez.

Hileta elizkizunean izan diren aldaketak.

Aldaketa handiak izan dira arlo horretan. Lehenago hiru apaizen artean ematen zuten hileta meza. Bi meza izaten ziren jarraian, bizkarra emanda eta latinez. Jendeak ez zuen parte hartzen. Mezak beti goizean izan behar zuten.

Gaur egun meza bakar bat izaten da, eta bai goizean zein arratsaldean. Meza euskeraz edo gaztelaniaz eta jendeak parte hartzeko moduan. Abesbatza ere orokorrean izaten da, eta jendeak erantzun eta abesten du. Hildakoari home-naldi legez, batzuetan, nork egin dagoenean, bertsoak ere izaten dira.

HITZ BEREZIAK

Aboline. Gaixoa hil zorian dagoenean abolinan sartu dela esaten da.

Aboliña kanpaiek. Norbait hil eta berehala elizan eta etxeari zegokion baselizan jotzen ziren kanpaiek.

Aingeru kanpaiek. Umeren bat hiltzen zenean jotzen zirenak. Hiltzen zenetik eta lurperatu arte jotzen ziren. Egunean birritan baselizan eta hiru bider parro-kian.

Andabidie. Hileta egunean hildakoa eramateko erabiltzen den bidea. Etxe eta auzo bakoitzak zehaztuta izaten zuen berea.

Anderuek. Hildakoaren kutxa eramaten dutenak.

Angillak. Hildako asko zegoenean hilkutxaren ordeztu erabiltzen ziren ohatilak.

Apostolaukue. Herrian hileta gastuak ordaintzeko sortutako elkarteak.

Argizaiolak. Argizari txortak jartzeko erabiltzen ziren tresnak.

Arimen honrak. Pertsona bat hil eta urtera edo bi urtera bere arimaren alde esaten ziren mezak. Bi izaten ziren jarraian.

Atautie. Hildakoa eramateko erabiltzen den egurrezko kutxa.

Beratzí urrena. Sasoi batean (1970-1990), hiletaren ondoren, bederatzí egunetan jarraian hildakoaren aldeko mezak izaten ziren arratsaldetan. Hau elizan kandelak jartzeari utzi zitzaionetik aurrera egiten hasi zen. Denborarekin egunak gutxitu egin ziren, eta azkenean egiteari utzi egin zitzaion.

- Bixittie.* Abadea elizakoak ematera etortzen zenean auzoko etxe bakoitzetik bat etortzen zen gaixoarengana. Auzo horiek etxekoei ematen zieten diru laguntzari esaten zitzaion *bixittie*.
- Domu Santu.* Hildako guztien homenez ospatzen den eguna, azaroaren batean izaten da.
- Elixakuek.* Apaizak hil zorian dagoenari egiten dizkion otoitz eta erritoei esaten zaie horrela.
- Elixakuen kanpaiek.* Abadea elizakoak eramatera joaten zenean jotzen zituztenak.
- Elixixune.* Elizan egiten diren otoitz eta erritokoak.
- Entierro bexkeijje.* Hileta ondoren kurutzero eta anderuei ematen zitzaien bazkaria. Orokorrean mezako zirenak ere joaten ziren.
- Entierro kanpaiek.* Hiletarako gorpua etxetik ateratzen zutenetik eta elizara iritsi arte bost minuturo jotzen zituztenak.
- Erresponsuek.* Apaizak hilkutxari elizan edo kanposantuan egindako otoitzei esaten zitzaien. Baita elizako sepulturan hildakoaren alde egindakoei ere. Orokorrean Pater-Nosterrak izaten ziren.
- Gaubelie.* Etxean hildakoren bat zegoenean etxekoak eta auzokoak etortzen ziren eta horri esaten zitzaion gaubelie. Gaua ere hildakoa zaintzen ematen zuten.
- Hil-kanpaiek.* Norbait hiltzen zenetik eta hiletara arte egunean hiru aldiz jotzen zirenak.
- Hirurrena.* San Pedro inguruan izaten ziren mezak, hiru egunetan jarraian.
- Jaierdijjek.* Elizak jai orokorrak baino txikiagotzat hartzen zituenak eta egun erdi jai hartzen zirenak. Horien artean otsailaren bia, martxoaren hogeita bosta, Pasko Erdiko, San Mateo, San Juan neguko, San Esteban, e. a.
- Kanposantue.* Hildakoak lurperatzeko edo nitxoetan jartzeko erabiltzen den tokia.
- Kurutzerue.* Hileta egunean elizara gurutzea eramaten zuen auzoko mutikoa.
- Lanparillak-mariposak.* Olio betetako edalontzi batean jartzen ziren metxatxoak, inguruan kartoi zatitxo borobila izaten zuten. Hildakoaren gelan jartzen ziren eta denbora guztian piztuta rnantentzen ziren.
- Lastamarragie.* Ohean jartzen zen arto malutaz egindako koltxoia. Norbait ohean hiltzen zenean erre egiten zuten. Gaixotasuna oso arriskutsua zenean ohe guztia erretzen zen.
- Medio-lutue.* Lutoak irauten zuen bigarren urtean beltz hutsez jantzi ordegris, more edo zuriz ere jantzi zitezkeen eta kolore hauei esaten zitzaien *medio-lutue*.
- Meza-dirue.* Senide eta auzokoek obligazio bezala zuten hildakoaren aldeko meza ateratzea. Honetarako apaizek ezarritako diru kopurua ematen zuten.
- Meza gregorianue.* Norbait hiltzen zenean, eta etxekoek nahi izanez gero, hogeita hamar meza jarraian, hilabete zehar, ematen ziren hildako horren alde. Hauek goizeko zortzirak aurretik izaten ziren.
- Mezako ixetie.* Mezako izaten ziren meza-dirua emateko obligazioa izaten zutenak, auzokoak eta bigarren lehengusuak arterako senideak.
- Olatie.* Arimen *ogijje*. Hileta egunean eta ondoren lutoak irauten duen bi urteetan elizako sepulturan eskeintzen zen ogia.
- Sepulturie.* Elizan etxe bakoitzak duen toki berezia. Bertan egiten dira eskaintza guztiak.

Serorie. Hileta egunean kandelak eta ogia etxetik elizara eramateko arduratzen den auzoko andrea. Elizako lanen ardura zuen andreari ere horrela esaten zitzaion.

Txakurrek. Errespontsoak esateko jendeak ematen zituen txanponak. *Txakur txikijje*, bost zentimo eta *txakur handijje*, hamar zentimo.

Urre bizijje. Etxean norbait gaixotzen zenean kortan botila baten barruan sartuta jartzen zen zerbait. Ez dakite ziur zer zen, baina badirudi mugitzen zela.

Urteijjerako mezie. Hiletaren ondorengo igandean hildakoaren alde ematen den meza.

Zeladorie. Apostulaukorako elkartekideen diruak biltzeko arduraduna.

Zor dan bidie. *Andabidie* beti errespetatu behar da aldatzen baldin bada bide berria bihurtzen delako andabide. Horregatik zor den bidea dela esaten da.

BERRI EMAILEAK

Angeles Mendilibar, 1925.

Donato Urien, 1903.